

Jubileu urtea irekiko du eliza katolikoak Gaboneko eta Eguberriko mezetan

Euskal Herrian ekitaldi ugari antolatatu dira 2001 urteko urtarrilera bitarte

Ainara Mendiola / Donostia

Gaur eta bihar hasiko da ofizialki 2000. urteko jubileua Euskal Herriko elizbarrutietan. Jainkoaren jaiotzaren bigarren milaurtekoa bete dela ospatuko du aurten eliza katolikoak eta jubileuaren xedea da kristauak fede osoz eta engaiamendu berrituz har dezatela parte. Eliza batzuk izendatu dira, fededunak hara joan eta barkamena jaso dezaten.

IAZ egin zuen Juan Pablo II.a aita sainduak 2000. urteko jubileurako deia, *Incarnationis mysterium* izeneko agiria bidez. Aita Sainduari dagokio deia egitea eta hogeita bost urtean behin egiten da ospakizuna, nahiz zenbaitetan salbuespen gisa lehenago izaten den. Urrikimendu eta bekatuen barkamen garaia da jubileua.

Fededunek Aita Sainduaren barkamen osoa jasotzen dute jubileu urteetan, baldin eta elizbarrutiek izendatutako eliza edo santutegietara joaten badira. 2000. urteko jubileuan Euskal Herriko honako lekuak izendatu dira erromesen bilgune: Arantzazuko Andre Mariaren Santutegia, Baionako San Andres eliza, Begoñako Basilika, Urkiolako Santutegia, Loiolako San Inazioaren Santutegia, Donostiako Artzain Onaren Katedrala... Gaur izango da barkamena jasotzeko lehen aukera Baionan, Tuteran eta Iruñean, jubileuari hasiera emango baitzaio (Baionan arratseko 22:00etan San Andres elizan; Tuteran eta Iruñean 23:30ean). Behe Nafarroan eta Zuberoan ez da ezohiko elizkizunik egingo, bai ordea gainerako eskualdeetan. Bihar egingo da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Eguberriko mezan.

Sakramenduak

Urtea irekita, hainbat ekintza egingo dituzte eliz barrutiek 2001 urteko urtarrilaren 6 arte (Epifania eguna). Eguzki urtaro oso bat hartuko du jubileuak —Haragitze eta Eguberriatik hasita Igokunderra arte— eta zazpi sakramenduak ospatuko dira: haurren bataioa (urtarrilaren 9an), helduen bataioa, konfirma-



LUCIANO DEL CASTILLO / EPA

Juan Pablo II.a aita sainduak herenegun hartu zuen parte jubileu urte aurreko azken ekitaldi ofizialdean, Vatikanon.

zioa eta eukaristia (Bazko Asteko bigilian, apirilaren 23an), penitentzia (apirilaren 18ko astearte santuan), gaxoen igurtzia (otsailaren 11n), ordena saindua (urtarrilaren 6an zein maiatzaren

14an) eta Ezkontza saindua (urtarrilaren 15ean).

Ospakizun hirukoitza

Urte osoan izaera ezberdineko ospakizunak egingo dira;

liturgiko, jubilar eta eliztarak, hain zuzen. Bazkoa, Eguberria, Deikundea eta bestelako ospakizun liturgikoak dira jubileuaren ardatz. Jubilarak izango dira urte santuko ospakizunekin zerikusia duten ekintzak — penitentzia eta erromesaldiak, esaterako —; eliztarak, berriz, elizako ohiko zenbait gertakariri erreferentzia egiten dietenak, ohiko jardunaldiekin zerikusia dutenak (gazteen jardunaldiak, familienak...) edo elizaren ospakizunekin zerikusia dutenak.

Aita Sainduak eman zuen 2000. urteko ospakizunen berri *Tertio millennio adveniente* izeneko gutun apostoliko batean (1994an). Eskutitzean Jainkoaren errukiaren bestelako adierazle bat aipatu zuen Juan Pablo II.a aita sainduak: «oroimen garbiketa edo norberak egindako akatsak onartzea». Horretarako «ausardia» eta «apaltasuna» beharrezkoak direla azpimarratu zuen.

Jubileuaren egutegiak hainbat ariketa aurreikusuten ditu kristauak egin ditzaite; gurutze-bidea, errosario santua eta penitentzia — norbera konbertitu eta barkamena eskatzeko —, horien artean. Ariketez gain, misioek, katekesiak eta arlo sozialak garrantzia handia izango dute 2000. urte osoko jubileuan.

Juan Pablo II.aren gidaritzapean

GAUR gauerdian emango dio hasiera Juan Pablo II.a aita sainduak jubileu urteari. San Pedro basilikako ate santuaren aurrera iristen denean, *Haec porta domini* (*Hau da Jainaren atea*) hitzak esango ditu eta atea bultzako du. Atea ireki eta argi guztiak piztuko dira. Pontifizeak orduan aldareantz jo eta Gabonetako meza emango du. Ordutik aurrera, nazio askotako milioika lagun bilduko dira Erroman, erromesaldia egin ondoren. Aurreikuspenen arabera, hogeita

sei eta hogeita bederatzita milioi bitarte lagun topaleku izango da hiriburua.

Jubileuaren amaiera iritsi arte ekitaldi anitzek lekuko bihurtzeko aukera izango dute bertaraten direnek. Honako hauek dira jubileuaren egitarauan jasotzen diren ekintzetako batzuk: Erromako lau basilika santuen (San Pedro, San Juan, San Paulo Harresiz Kanpoko eta Santa Maria Nagusia) atek irekitzea, saindu eta dohatsuen izendapena... Gainera, jubileuaren himnoa

entzun ahal izango da Andrea Bocelli abeslariaren ahotsetik eta musika emanaldiak egingo dira lau eguneko ziklo batean. Aita Sainduak zabalduko ditu ekitaldi horietako batzuk. Baina, gaur San Pedroko atea ireki ondoren etorriko dira ekitaldiak.

San Pedro basilika 1499tik da jubileuaren atari, ordu arte San Juanen egiten baitzen Gabon gaueko meza. Lehenengo jubileua 1300. urtean izan zen, Bonifazio VIII.ak ezarri oste-

an. Hurrengo pontifizioak 50 urtetik behin ospatzea erabaki eta hala egin zen 1475 arte. Garai hartan hogeita bost urtean behin egiten hasi baitziren. Egundorrela ospatzen da, baina Aita Sainduak aukera dute ezohiko jubileu urteetarako deia luzatzeko.

Israelgo herriaren jubileu urtean oinarrituta dago jubileu erromatarra. Esklabuak aske uzten ziren antzina, zordunei zorrak barkatzen zitzaizkien... Gaur egun ere ospatzen da jubileua Lur Sainduan.

laburrean

Isun eta fiantza gehiago jarri dizkietela salatu dute Leioako irakasle kaleratuek

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATETIK kaleratu dituztela eta Leioako kanpusean irakaslego propiorearen aldeko borrokan diharduten irakasleek isun eta fiantza gehiago jarri dizkietela salatu dute. Hain juxtu Euskal Autonomia Erkidegoko Kontentzioso-administratiboko epaigelak 50.000 pezetako isuna jarri dietela azaldu dute (2.000 libera). Halaber, Getxoko 4. Instrukzioko Epaitegiak 80.000 pezetako fiantza jarri diela ekarri dute gogora (3.200 libera).

Venezuelako hondamendiari aurre egiteko kanpaina bat abian jarri da

NAZIOARTEKO ELKARTASUNA BAI erakundeak larraldi kanpaina bat sustatu nahi du Venezuelan jazo diren eurite handiek kaltetuei laguntzeko. Horretarako, 58 milioi pezeta behar dira (bi milioi libera pasatxo) eta BBKn zabaldu duten kontuan dirua sartzeko deia egin diete elkartasuna azaldu nahi duten guztiei. Halaber, gaur Eroskik Bizkaian dituen hipermerkatuetan elikagaiak bilduko dira Venezuelara bidaltzeko. Ekimena Simon Bolivar elkarteak eta Venezuelako kontsulatuak sustatu dute.

Juan Jose Goirienak Eusko Ikaskuntzako lehendakari izan da

EUSKO IKASKUNTZAKO lehendakari hautatzeko Batzar Berezia egin zen atzo. Aurkezturiko hautagaiak aho batez aukeratuak izan ziren. Ondorioz, lehendakari izaten jarraituko du Juan Jose Goirienak. Lehendakari hautatu berriko kideek ikerlari gazteen alde egin nahi dutela azaldu zuten.

Emakume bat atxilotu dute gizon edadetu bati lapurretan egiteagatik

ERTZAINEK herenegun arratsaldean MC.M.E andrazko donsotiarra atxilotu zuten. Ustez joan den asteko ostegunean Lasaretoko gizon baten etxera iruzur eginez sartu, hari mehatxu eginez ahoa estali eta lapurretan egin zuen. Lehendik era antzeko ekintzak egin zuten.